



2024 KAMISETA LEHIAKETA

Helburua: ZSE-ko kamisetaren diseinua egitea

Saria: Negurako surfeko jantzia

Hasiera data: 2024ko Abuztuak 15

Amaiera data: Irailak 25

Partehartzaileak: ZSE-ko bazkideak eta Zarauztarrak

Oinarriak

1.- Saria eskuratu ahal izango dute ZSE-ko bazkideek eta Zarauztar artista afizionatuek. Egile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du.

2- Lanak, surfa eta bere filosofia irudikatu behar ditu eta hau edozein teknika artistikorekin egin ahal izango da, baldin eta azken emaitza fitxategi digital bat bada, zeina, kamisetan inprimatu ahal izango den.

3.- Obrak sortu berria izan behar du, egilearen jabetza intelektualekoa eta beste lehiaketa batzuetan parte hartu gabea. Egileak, ZSE-ri bermatzen dio lanaren eta bere obraren jabetza intelektuala. Debekatuta dago pertsona zehatzak edo hirugarrenen jabetza intelektualak imitatzen dituzten lanak aurkeztea, besteak beste; pertsonaiak, markak, logotipoak, irudiak, ilustrazioak, estiloak, konposizioak...

4.- Obrak aurkezteko epea, abuztuaren 15etik irailaren 25era izango da. Epe horretatik kanpo ez da bidalketarik onartuko. ZSE-k, epe horiek aldatzeko eskubidea izango du, egokia irizten badio. Diseinuak posta elektronikoen bidez baino ezin dira bidali. Beste bide batetik bidalitako diseinuak ez dira onartuko.

Posta elektronikoa: zse@zarauzkosurfelkartea.com

5.- Saria: surfeko traje bat izango da.

6.- Epaimahaia, ZSE-ko juntako kideek eta artista batek osatuko dute. Hauek, lanaren kalitate teknikoa, originaltasuna eta abar kontuan izango dituzte. Horretaz gain, partaideak ZSE-ko bazkide izatea positiboki baloratuko da. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da eta publiko egingo da. Erakundea, posta elektronikoz jarriko da harremanetan epaimahaiaren erabakia jakinarazteko. Sariak emateko eguna jakinaraziko zaie pertsona inplikatuiei.



7.- Saritutako egileak, bere jabetza intelektualari kalterik egin gabe, erreproduzitzeko, banatzeko eta jendaurrean komunikatzeko eskubideak, ZSE emango dizkio, obra iraungi arte. Hortik kanpoko beste edozein erabilera egilearekin negoziatuko da. Egiletza uneoro aitortuko da. ZSE-k ez die saritutako diseinua hirugarren batzuei komertzialki eragintzen lagako.

Izenematea eta dokumentazioa

Izenematea telematikoki egingo da, e-posta bidez. Parte hartzaileak, ondoko informazioa eman behar du izena ematean:

Egilea (izen-abizenak)

Helbidea

Herria

Telefonoa

E-maila

Fitxategia (abizena izena jarriaz izendatu)

Baldintza teknikoak

Diseinua, kamisetaren atzealdean jarriko da. Hala ere, azken diseinuaren konposizioa, ZSE-k beharrezkotzat jotzen badu, alda dezake. Ondorioz, hautatutako diseinua, proposatutako aldaketa posibleen mende geratzen da.

Diseinuak, 300 pppko bereizmena izango eta 21x30 cm-tako, gehienez. Neurri horiek erreferentzia dira. Irudiaren kalitatea bermatzeko. Zabalera/altuera beste proportzio bat erabil daiteke. Irudia. CMYK modua entregatu behar da.

Fitxategia, JPG formatuan bidali behar da, "abizena-izena" moduan izendatuta. Irabazleari, diseinua kalitate handian eskatuko zaio, PNG, PDF, AI edo PSD moduan (guztiak fondo gardenarekin). Parte-hartzaileek, gehienez bi kolore erabil ditzakete diseinuan. Diseinua kamiseta ilunerako pentsatuta badago, zuria erabiltzea posible da diseinuan. Kamisetan jarritako azken emaitzaren koloreak, diseinutik pixka bat aldatu ahal izango dira.



Baldintza teknikoak

Kamisetaren kolorea ez dago zehaztuta.

Azken diseinuak, ZSE-ko logoa eraman beharko du.

Hau, lortzeko bi bide daude:

1. ZSE posta elektronikoa idatziaz: zse@zarauzkosurfelkartea.com
2. www.zarauzkosurfelkartea.com web orritik deskargatuaz



Datuen babesa

ZSE-k jakinarazten du, datu pertsonalak eta posta elektronikoko helbideak, interesdunarengandik edo iturri publikoetatik jasotakoak, ZSE-ren erantzukizunean tratatuko direla, gure produktu eta zerbitzuei buruzko elkarrenganako interesa dagoen bitartean. Datuak ez zaizkie jakinaraziko hirugarrenei.

Oinarriak onartzea

Lehiaketa honetan parte hartze hutsak, lehiaketa honen baldintzak bere osotasunean onartzen direla esan nahi du.